



# KLIKATUZ



## Sareko hiztegieta sartzeko klik bakarra eskatzen duen gunea abian da

Artez Euskara Zerbitzuak sarean dauden hiztegiarako bideak batu ditu gune bakar batean, [www.hiztegia.net](http://www.hiztegia.net) web gunean, hain zuzen ere. Horri esker, hizkuntzarekin lan egiten dutenek edota euskararen inguruan zalantzaren bat dutenek klik bakarra erabili ahal izango dituzte sarean dauden hiztegiak. Helburu praktikoa du guneak, izan ere, hiztegi kontsultak egiteko gune bakarra erabiltzea **ahalbidetzen'** baitu. Gainera, hiztegi **mordoa**<sup>2</sup> topa daite-

ke, erabilienetatik hasi eta hain ezagunak ez direnak arte: Elhuyar, 3000 Hiztegia, Euskalterm, sinonimoen hiztegiak, euskara-katalana hiztegia, euskara-okzitaniera, etab. Jakina, den denak ez daude, baina gehienak bai. Horrez gain, beste zenbait hiztegi ere paratu dituzte, baita **laburdura**<sup>3</sup> eta akronimoekin osatutako hiztegiak ere. Toponimo eta esaera zaharren datu baseetarako bideak ere ez dira falta [www.hiztegia.net](http://www.hiztegia.net)-en.


### ARALARKO SAN MIGEL SANTUTEGIAK

web orria jarri du abian: [www.aralar-excelsis.com](http://www.aralar-excelsis.com). Gune berriaren helburua, santutegiari buruzko informazioa ematea da, Nafarroako zaharretarikoa eta ezagunetarikoa baita. Era berean, Aralar mendizerraren eta bertako monumentu megalitikoaren



inguruan ere hainbat informazioa eskaintzen du, bai testuen bitartez, bai irudi mordoa erabiliz. Historian zehar San Migel santutegiari buruz berrogei bat egilek idatzitakoak ere irakur daitezke gunean, baita gaur egungo albisteak ere. Gunea euskaraz edo gaztelaniaz bisita daiteke.

**WWW.EUSKARAZ.TV** web guneak bideoak euskaraz ikusteko aukera eskaintzen du. *Proyeccion* taldeak 2001ean estreinatu zuen [www.proyeccion.tv](http://www.proyeccion.tv) gunea, eta orain, euskaratu egin du. Gunean, bost atal topa daitezke: Hitzaldiak, Albisteak, Expo art, Zabalik eta Turismoa. Atal bakoitzaren barnean, bideo bilduma bat eskaintzen da. Oro har, Euskal Herriko eta euskarazko informazioa lanerako tresna duten sektoreei dago zuzendua web gunea.



**WWW.ZIENTZIA.NET** ataria, zientzia dibulgazioa euskaraz lantzen duen gunea, bertu egin dute. Berrikuntzek diseinuari eta edukiei eragin diete. Hala, hiru atal berri izango ditu [www.zientzia.net](http://www.zientzia.net)-ek: Hileko zerrua (astronomia efemerideak argitaratzeko), Dibulgazio liburuak (hilaro liburu bat gomendatzeko) eta Gaiak (atariak dituen eduki guztiak barneratzen ditu). Orain arteko atalek ere zenbait aldaketa jasan dituzte, hala nola, izen aldaketak.

1. **Ahalbide(tu):** aukera eman, baimen(du), utz(i).
2. **Mordo:** pilo, asko, ugari.
3. **Laburdura:** abreviatura (es), abréviation (fr).
4. **Santutegi:** santú bat gurtzen den eliza.
5. **Bilduma:** colección (es), collection (fr).